



2020-2021 ikasturteko txostena

Aldezlea

Joxin Etxezarreta Odriozola

Arau-esparrua

*Deustuko Unibertsitateko Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudia*¹ betetzeko, zeinak indarrean dagoen legearen (LOU 6/2001) hamalagarren xedapenean ezarritako oinarriak jasotzen dituen, Aldezleak 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra egindako lanaren Urteko Txostena aurkezten da, araudi horren 15. artikuluari jarraiki: “Aldezleak urteko txostena egingo du; bertan, aurreko ikasturtean egindako jarduerak zehaztuko dira. Txostenak aurkeztutako erreklamazio kopuruaren eta motaren gaineko informazioa jasoko du, tramitatzeko onartu ez direnak eta horretarako motiboak, eta tramitatutakoak eta haien emaitzak. Txostenean ez da isilpeko daturik edo datu pertsonalik jasoko, interesdunak identifikatzeko aukerarik egon ez dadin”.

Txosten hau ohiko moduan zabalduko zaio Deustuko Unibertsitateko elkarteari, barruko komunikabideak, estraneta eta sare sozialak erabiliz. Dokumentua Unibertsitateko Aldezlearen webgunean² jarrita egingo da aurkezpen publikoa eta bertan egongo da ikusgai aurreko urteetako txostenekin batera. Aurretik, 2021eko azaroaren 25eko Kontseilu Akademikoan, txosten honen laburpena, Aldezlearen eginkizunaren gaineko gogoetak eta hobetzeko proposamenak aurkeztu dira.

Txostena idazteko orduan, ahalegina egin da unibertsitateko elkarteko kide guztien eskubide eta askatasunak errespetatzeko eta konfidentzialtasun osoa gordetzeko pertsonen eta kasuen tratamenduan, urtean zeharreko jarduketei buruzko informazioaren gardentasuna galdu gabe.

¹ Kontseilu Akademikoak 2013ko martxoaren 14an onartua, eta 45. DUAOn argitaratua, eta 2020ko urriaren 20ko Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiz aldatua eta 77. DUAOn argitara emana.

² https://www.deusto.eus/cs/Satellite/deusto/eu/deustuko-unibertsitatea-2/deusturi-buruz/nor-garen/aldezlea?cambiodioma=si&_ga=2.208516817.2112527584.1607934482-1074885207.1539265624

EDUKIAK

Aurkezpena (4)

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak (4)
2. Datuak, analisiak eta jarduketaren deskribapena (5)
 - a. Aztertutako gaiak (5)
 - i. Jarduketaren bilakaera (6)
 - ii. Tipologiaren arabera jarduketak (6)
 - iii. Campusaren arabera banaketa (7)
 - iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa (8)
 - v. Sektoreen arabera banaketa (8)
 - vi. Zentroen eta zerbitzuen arabera banaketa (9)
 - vii. Kolektiboaren eta sexuaren arabera banaketa (10)
 - viii. Ikasketen mailaren arabera banaketa (10)
 - ix. Ebazpenak (11)
 - x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera (11)
 - b. Datuen balorazioa (12)
3. Jarduketa instituzionalak (14)
 - i. Kanpo jarduketak (14)
 - ii. Ikasleak (15)
4. Azken gogoetak (15)

Aurkezpena

Txosten hau, aurrekoa bezalaxe, COVID-19ak baldintzatutako ikasturte arraro, ezohiko bati buruzkoa da eta aurreko urteetako txostenen eskemari jarraituko dio, gutxi gorabehera, aurreko urteetako datuekin konparazio txiki bat egin ahal izateko.

Ohi duen bezala, ikasturte honetan zehar ere Aldezlea zerbitzura laguntza eske hurbildu den pertsona orori laguntzen saiatu da. Arazoak elkarrizketa bidez konpontzen eta adostasunera heltzen ahalegindu da beti.

Gure esker ona adierazi nahi diegu arazoak konpontzen lagundu duten unibertsitateko organoei eta pertsonaei; baita kexa, erreklamazio, kontsulta edo arazoren bat adieraztera eta, orokorrean, haren esku hartzea eskatzera Aldezlearengana jo duten guztiei ere, zerbitzuan erakutsitako konfiantzagatik.

Era berean, barkamena eskatu nahiko genioke Aldezlearen partetik guztiz defendatua sentitu ez denari edo bere eskubideak aitortuak izan ez direla sentitu duenari.

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak

Ikasturte honetan era honetako jarduketak kudeatu dira:

- **Kexak.** Kasu honetan, interesdunak uste du unibertsitateko organo edo pertsona batek hartutako erabaki batek edo egintza batek bere eskubideak urratzen dituela. Mota honetako erreklamazioak Aldezlearengana iristeko, arazoa konpontzeko eskura dauden beste bide guztiak agortu behar ditu aurretiaz. Alabaina, nahiz eta jakin Aldezleak azken aukera gisa bakarrik jarduten duela, ohikoa izaten da Defentsa bulegora etortzea, arazoa konpontzeko orientazioa, laguntza edo aholkua eskatzeko. Dena delakoagatik errekurtsioa Aldezleari ez badagokio, orduan ez da eskabidea izapidetzen.
- **Kontsultak.** Interesdunek orientazioa, informazioa edo laguntza behar dute. Gaiak askotarikoak izan daitezke: arauak, administrazio kontuak, zerbaiten funtzionamendua edo elkarbizitzarekin edo lanarekin zerikusia dutenak. Unibertsitateko kudeaketa-organoetako arduradunen aurrean egin ohi dira gestioak eta, normalean, arazoa azkar konpontzen laguntzen dute. Batzuetan, nahikoa izaten da informazioa ematea.
- Aldezlearen eginkizunetan **bitartekaritza** lanak ere badaude. Gero eta gehiago gomendatzen da bitartekaritzaz baliatzea unibertsitateko bizitzako gatazkak konpontzeko, unibertsitateko elkarteko kide edo talde batek eskatuz gero. Aurten ez da bitartekari lanik egin behar izan.
- Eta, azkenik, Aldezleak **ofiziozko jarduketak** egiten ditu ikusiz gero Unibertsitatearen ebazpen edo egintzaren batek edo unibertsitateko elkarteko kideren batek edo batzuek unibertsitateko kideen eskubideak

urratzen dituztela. 2020-2021 ikasturtean zehar ez da ofiziozko jarduketarik egon.

Kasuen izaeraren arabera, Aldezleak, ebazteko ahalmenik ez duenez, gomendioak edo iradokizunak eman ditzake edo txostenak egin aurkeztutako kexen ondorioz. Agintari akademikoei edo zuzendaritzakoei dagokie kasuan-kasuan behar dena egitea.

Izapidetzea onartuz gero, interesdunaren eskabideari dagozkion jarduketei ekiten zaie. Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudiaren (9. art.) eskakizunak betetzen ez diren kasuetan, **ez da onartzen eskabidea izapidetzea**. Webguneko inprimaki bidez jasotako kexa guztiak izapidetu dira. Dena dela, jarduketaren batean gertatu izan da, kexa unibertsitateko hainbat instantzian izapidetu denez, Aldezleak instantzia horiek erantzun arte itxaron behar izan duela.

Azkenik, araututako jarduketetatik kanpo, arestian esan bezala, zenbait pertsona arreta bila eta entzunak izatera etorri dira. Denei eman zaie arreta eta, kasuen arabera, aholkua ere bai.

2. Datuak, analisiak eta jarduketaren deskribapena

Atal honetan, landutako gaietako buruzko datu estatistikoak aurkezten dira, 2020-2021 ikasturteko jarduketaren laburpenarekin batera.

Kexak eta kontsultak Aldezlearen ohiko gestio pertsonalen bidez ebatzi dira; hots, egoera eta arazoak aztertu dira, kasuarekin zerikusia duen aginte, organo edo zerbitzuarekin hitz egin da eta informazioa edo txostenak eskatu dira. Kasuaren izaeraren arabera, kexak eta kontsultak egiteko, jendeak Aldezlearen bulegora zuzenean jotzeaz gain, telefonoz deitu edo posta elektronikoa ere bidali du. Horrez gain, bideokonferentzia ere izan da arazoak artatzeko eta konpontzeko bidea. Kasuen arabera, txostenak edo gomendioak bidali zaizkie pertsona, zerbitzu edo organoei kalteak konpontzeko edo, orokorrean, zerbitzua hobetzeko.


a. Aztertutako gaiak

Jarraian, honako datu hauei dagozkien grafikoak ageri dira: jarduketaren bilakaera, tipologia, campusaren arabeko banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabeko banaketa, sektoreen arabeko banaketa, zentro eta zerbitzuen arabeko banaketa, kolektiboaren eta sexuaren arabeko banaketa, ikasketa mailaren arabeko banaketa, ebazpenen egoera eta emaitza, eta, amaitzeko, jarduketak,

eskaeraren arrazoiaren deskribapenarekin eta kolektiboen arabera banatuta, taula batean bilduta.

i. Jarduketan bilakaera


2019-2020 ikasturtean, pandemiaren eta konfinamenduaren ondorioz, Aldezlearen jarduketa-eskaera % 45 igo zen; 20-21 ikasturtean, aldiz, % 40 jaitsi da, eta pandemiaren aurreko zifren azpitik geratu da. Guztira 19 izan dira eta aurreko ikasturtean 32. Uste dut oso lagungarria izan dela aldez aurretik iragartzea eta behar bezala komunikatzea zein izango ziren irakasteko moduak, protokoloak, zer eta nola jarriko zen martxan eta zer ezingo zen egin Covid-19a dela-eta indarrean zeuden araudi soziosanitarioen ondorioz.



ii. Jarduketa motak

Jarduketa motak

■ Kexak ■ Kotsultak




Eskabide motei dagokienez, kotsultak lautik bat dira gutxi gorabehera; ondorioz, aurreko ikasturteko proportzioa mantentzen da.

Aldezlearen web orriaren inprimakia izan da batez ere hasierako izapidetze bidea. Elkarrizketa pertsonalak eta telefonikoak ere egon dira.

iii. Campusaren arabera banaketa

Jarduketak campusaren arabera

■ Bilbao ■ Donostia



Bilboko campusa da esku hartze gehien dituenena, % 89 hain zuzen ere. Donostiako campusa jaitsi egin da aurreko ikasturtearekiko.

iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa



Gaztelania da hizkuntzarik erabiliena erreklamazioetan. Ikasturte honetan bakarra egon da euskaraz.


v. Sektoreen arabera banaketa



Ikasleak dira, aurren ere, Aldezlearen zerbitzua gehien erabili dutenak. Gehienak graduetakoko ikasleak dira (13), ondoren graduondokoak (5) eta, azkenik, alumni

taldekoak (1). Ikasturte honetan ez da Aldezlearen bulegora ez irakasle, ez ikertzaile, ez administrazio eta zerbitzuetako langilerik hurbildu.


vi. Zentroyen eta zerbitzuen arabera banaketa



Izapidetu diren arazoak, zentroka, honela banatzen dira: Administrazioan eta Zerbitzuetan, 7 jarduketa; Errektoretzan, 1; DIRSen, 1 eta gainontzekoak, 10, fakultateekin zuzenean lotutako jarduketak izan dira.

vii. Kolektiboaren eta sexuaren araberako banaketa

Guztira, kolektiboaren eta sexuaren arabera




Berriro ere, Aldezlearengana jo dutenen artean, emakumeak gizonak baino gehiago dira; ikasturte honetan, gainera, aurrekoan baino alde handiagoz.

viii. Ikasketen mailaren araberako banaketa


Ikasleentzako jarduketak euren ikasketen mailaren arabera

■ Gradua ■ Masterra ■ Doktoregoa ■ Alumnoi



Ikasketa mailaren arabera, aurreko urteetan bezala, graduiko ikasleak izan dira Aldezlearen bulegora gehien hurbildu direnak, 13 jarduketekin guztira. Masterreko ikasleak 3 izan dira, eta doktoregokoak 2.

ix. Ebazpenak



Esan dezakegu kexa eta kontsulta guztiak bideratu direla. Aldekoak ez diren ebazpenen proportzioa hirutik bat da, gutxi gorabehera, aurreko ikasturtean bezala. Aurten ere, egindako kexa asko ikasturte osoan zehar unibertsitatean jarduteko moduan eragina izan duen COVID-19aren ondoriozko egoerei aurre egiteko iradokizunak edo proposamenak izan dira; praktikei, mugikortasunari eta abarri buruzko gaiak, esate baterako, eta kasuan kasuko arduradunei helarazi zaizkie. Horrelako gaiak 'izapidetu' egin direla esan dugu, baina kasu gehienetan ezin izan zaie aldeko erantzunik eman.

x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera

Jarduketak eskaeraren arabera	Ikasleak	II/AZL
Atzerapena tituluaren eskabidea izapidetzean, arreta-ordutegia, telefono bidezko arreta-falta	5	-
Azpiegiturei, instalazioei, CRAI espazioen erabilerari eta abarri buruzko kexak	1	-

COVID-19aren ondoriozko irakaskuntzaren aldaketei buruzko kexak eta proposamenak: praktikak, mugikortasuna, ikaslearen arreta, eskola-orduak	5	-
Azterketa egiteko eta identifikatzeko araei buruzko kontsultak	1	-
Irakaslearen tratuari buruzko kexa	1	-
Euskara mailen baliozkotzeari buruzko kontsulta	1	-
Ikasketetan aurrera egiteko araudiaren ondoriozko arazoei buruzko kexak. Deialdiak.	2	-
Onarpen-arazoei buruzko kexak, masterra, Ikastetxe Nagusia	2	-
Ikasleen arteko balizko jazarpenaren gaineko kontsulta	1	-
Guztira	19	

b. Datuen balorazioa, hausnarketa.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet unibertsitateko elkarteari eta Errektoreari, lau urteko azken agintaldian Aldezle izaten jarraitzeko eman didaten aukeragatik. Aurreko ikasturtean izan genuen diszernimendu-prozesuan, ideia edo ondorio pare bat sortu ziren, denekin partekatu nahi nituzkeenak, lau urteko perspektiba ere bai baitugu.

Lehenengoa urte hauetan guztietan azpimarratu dudana: Aldezle zerbitzua jada instituzionalizatuta dago Deustu barruan beste organo bat bezala, bere funtzio eta helburuekin, eta bere ohiko funtzionamendua normaltasunez gertatzen da: oro har, aldezearen esku hartzearen beharra duten pertsonak badakite nora eta nola jo. Eta arlo, sail eta abarretako agintari eta arduradunek behar bezala erantzuten diete aldezearen eskakizunei. Denok lagundu dugu horrela izan dadin, eta oso eskertuta gaude.

Bigarrenik, oraindik ez dugu lortu Aldezleak unibertsitateko komunitate osoan izan behar duen agerikotasuna eta protagonismoa, eta horretan, ziurrenik, hainbat faktorek eragina izan dute. Arrazoietakoa batzuk izan daitezke Deustuko idiosinkrasia bera, pertsonen profila, gure unibertsitatearen jarduteko moduak, prozesuen normatibizazioa, etab., edo Zuzendaritzak Aldezlea sustatzeko interes eta ekimen gutxi izan duela, edo Aldezleak berak nola jardun duen edo ez duen jardun, edo denetik pixka bat. Autokritika beharrezkoa dela uste dut.

Egunekoari begira bizi gara, eta berehala pasatzen dugu orrialdea, baina komeni da gogoratzea, ezer baino lehen, 2020-2021 ikasturtea ere berezia izan dela.

Pandemiak eta haren ondorioek nabarmen baldintzatu dute unibertsitatea, haren funtzionamendua eta komunitatea. Pertsona askok zuzenean bizi izan dugu gaixotasuna, beste batzuek zeharka, baina guztioi eragin digu. Zenbaitek San Inazioaren zauriarekin alderatu dute, konbertsioaren 500. urteurrenean. Gure inguruko pertsonen sufrimendua ez ahaztea komeni dela uste dut.

Eta pandemiak zuzenean baldintzatu du unibertsitatearen funtzionamendua bere esparru guztietan. Uste dut komunitatea, aurreko txostenean ere azpimarratu nuen, egoerak eskatzen zuen mailan egon dela. Errektoreak eta, oro har, komunitate osoak ondo aitortu duen bezala, aurreko ikasturtean egoera aldakor, zail eta korapilatsuei modu arduratsu eta arrakastatsuan egin zitzairen aurre, ia zentzu guztietan: ikasleen eta irakasleen egokitzeko gaitasuna, ikasleen arreta, emaitza akademikoak, pertsonen inplikazioa, online arreta, etab.

Hori guztia, segur aski, lagungarria izan da denentzat eta, hala, 19-20 ikasturtean ez bezala, non pandemiak eta konfinamenduak Aldezlearen jarduketa-eskaeran % 45eko igoera ekarri baitzuten (32 eskaera), 20-21ean Aldezlearengana jo beharra % 40 jaitسي da eta pandemiaren aurreko zifren azpitik geratu da (19 eskaera). Lautik bat kontsultak izan dira, eta gainerakoak kexak edo erreklamazioak. Ikasturte honetan graduako, graduondoko eta alumniko ikasleak hurbildu dira, ez da administrazio eta zerbitzuetako langilerik, irakaslerik ez ikertzailek gerturatu. Uste dut oso lagungarria izan dela alde aurretik iragartzea eta behar bezala komunikatzea zein izango ziren irakasteko moduak, protokoloak, zer eta nola jarriko zen martxan eta zer zen ezinezkoa indarrean zeuden araudi soziosanitarioak kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, egoera bereziak egon dira egindako kexa, erreklamazio eta kontsulta gehienen atzean. Aldezlearen jarduna bi arlotakoa izan da nagusiki: batetik, COVID-19aren ondoriozko irakaskuntza-moduei buruzko kexak eta aldaketa-proposamenak bideratzera zuzendua (praktikak, mugikortasuna, ikaslearen arreta, eskola-orduak...); eta, bestetik, unibertsitateko instantziaren batek emandako arretari buruzko kexei erantzutera zuzendua (arreta-ordutegia, telefono bidezko arreta-falta, titulu-eskaera izapidetzeko denborak, informazio gutxi...). Aurreko ikasturteetan agertu izan diren beste bi gai ere jorratu behar izan ditu: bata, azpiegituren erabilera, zehazki, Unibertsitatea itxita dagoen egunetan CRAI irekitzea, Pazko Astea, adibidez; bestea, irakasleek ikasleari emandako tratua, egoera zail samarretan, adibidez, kalifikazioak berrikustean edo aurrez aurreko ebaluazioan edo azterketan, kasurako, ikasleak ez duelako nortasun-agiririk aldean erakusteko.

Kontua da, batzuetan, zer esaten den, zer komunikatzen den, zein den arazoa baino eragin handiagokoa dela, edo nahi ez diren ondorioak dituela, nola esaten den, nola komunikatzen den. Unibertsitatea, aurreko memorietan azpimarratu dugun bezala, giza harremanetan oinarritzen da, eta pertsonen arteko bizikidetzan eragin handia du elkarrengana zuzentzeko moduak. Argi dago modu

horietan kulturak, hezkuntzak, nahikoa eragin duela, baina baita, adibidez, belaunaldien arteko ezberdintasunak ere. Beraz, gerta daiteke batentzat adierazpen arrunta dena beste batentzat errespetu falta izatea, edo batentzat ironia dena beste batentzat ia hitzeko eraso izatea. Guztion lana da pertsonekin ahalik eta errespeturik handiena izaten saiatzea, baita hizkuntzaren bidez ere, eta egoki eta beharrezkoa da, halaber, bestearen lekuan jartzea.

Beste urte batzuetan bezala, ikasketetan aurrera egiteko eta jarraitzeko araudiaren ondoriozko arazoak ere egon dira. Ikasleak Aldezlearengana jotzen du dena delakoagatik aurrera egiteko eta ikasten jarraitzeko planak moztuta ikusten dituelako. Araua berdina da guztientzat, eta ezin da tratu diskriminatzailearik egon, baina gogoratu behar da pertsona oro bakarra dela, eta haren inguruabarrak ere bai; beraz, nire ustez, erabakiak hartzerakoan hori guztia hartu behar da kontuan.

Azpitarratu nahi dudan beste alderdi bat da ikasleak, sarri, kexa edo erreklamazioak formalizatzeko orduan beldurra edo mesfidantza sentitzen duela. Nahiz eta ikasleek eskaerak eta kexak egiteko eskubidea duten, Ikasleen Araudiko 20. artikuluan jasotakoaren arabera, badirudi gehiago dagoela pentsatuta taldeentzat. Banaka, batzuk lehenengo kontsulta bat egitera hurbiltzen dira, norbaitek hau edo hura esan edo egin duela eta kexa bat jarri gero zer gertatzen den galdetzerara. Eta prozedura argitu ondoren, pentsatuko dutela adierazten dute. Are gehiago, batzuek kexa jarri izan dute eta, lehenengo jarduketan ondoren, ondorioen beldur, ez dutela aurrera jarraitu nahi adierazi dute. Hau da nire urteotako esperientzia, eta ez dugu asko aurreratu horretan. Unibertsitate batzuek errepresalien aurkako protokoloak ere badituzte. Nire ikuspegia gehiago da Aldezlearengan konfiantza sortzea eta, zintzoa izan behar dut, ez dut lortzen edo ez dugu lortzen.

3. Jarduketa instituzionalak

i. Kanpo jarduerak

Joan den ikasturtean ez zen Unibertsitateko Defentsa Bulegoen Estatuko Konferentziaren (CEDU) aurrez aurreko topaketarik izan, urte guztietan bezala, baina urteko batzarra bideokonferentzia bidez izan genuen, 2020ko azaroaren 6an.

2020-2021 ikasturtean CEDU adi eta kezkatuta egon da eztabaidatzen ari ziren eta oraindik ere eztabaidatzen ari diren bi lege-proiektuekin: Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa eta, batez ere, Unibertsitate Bizikidetzaren Legea. Azken horrek arreta eskaintzea merezi du. Kongresutik igaro ondoren, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Batzordetik zehazki, Gorte Nagusietako Aldizkari

Ofizialean argitaratu da testua, Senatura joan dadin, bertan onar dezaten. Indarrean sartu bezain laster, unibertsitate guztiek urtebete izango dugu Bizikidetza Arauak garatzeko. Guretzat berritzaileena da, lehenik eta behin, gatazkak konpontzeko bitarteko alternatiboen garapena bultzatzen duela, bitartekaritzaren aldeko apustu argia eginez; bigarrenik, beharrezkoa izango dela Bizikidetza Batzorde bat abian jartzea, aurreproiektuaren arabera unibertsitateko aldezlea buru izango lukeena. Hortik dator interesa, kezka eta eztabaida CEDUren barruan, Unibertsitateko Aldezleak buru izatea komeni den ala ez argi ez duelako. Testu berrian, alderdi politikoen zuzenketen ondoren, artikulua hori ezabatu egin da, eta, azkenean, askoz garrantzi handiagoa eman zaie araudi autonomikoari eta unibertsitateen autonomiari, beren arauak garatzeko orduan.

Diziplina-araubideari dagokionez, dio, hitzez hitz, unibertsitate pribatuek autonomia izango dutela beren diziplina-araubidea ezartzeko eta bakoitzak bere arauetan diziplina-ahalmenak izatea zein organori dagokion zehazteko. Azken hori, Deustun, oso garatuta daukagu, eta, gainera, duela gutxi egindako aldaketekin, batez ere zehapen-araubidearen moduei eta epeei eragiten dieten kontuetan. Nolanahi ere, ez da alferrikakoa izango hori guztia nola garatzen den ikustea Euskal Unibertsitate Sisteman, alde batetik, eta Unijeseko unibertsitateetan, bestetik. Gure asmoa da koordinazioan lan egiten jarraitzea, orain arte bezala; izan ere, zer pentsatua emango liguke, adibidez, batzuentzat falta arina dena beste batzuentzat oso larria balitz.

ii. Ikasleak

Beste behin, *Deusto Campusaren* laguntzarekin, ikasturte honetan bi prestakuntza ikastaro eskaini zaizkie ikasleei. Lehen seihilekoan, "Gatazka modu positiboan kudeatzeko tresnak eta teknikak: negoziazioa eta bitartekaritza" izan zen hizpide, eta bigarren seihilekoan, "Eskola jazarpena eta ziberjazarpena. Prebentziorako eta esku hartzeko tresnak". Biek arrakasta handia lortu zuten, bai deialdiak izandako erantzunean, bai azken ebaluazioan eta bertan parte hartu zutenen asebetetzean.

4. Amaierako gogoetak

Dokumentu hau aurreko ikasturteko memoria den arren, aurrerako begirada izatea ere garrantzitsua iruditzen zait. Unibertsitateak zer hobetua badu, eta horretan, neure gabezia eta mugak aitortuta, laguntzeko prest nauzue. Denok ondo dakigunez, Deustuko Unibertsitatea erakunde handi eta konplexua da eta aldaketak egitea batzuetan kostatu egiten zaigu, neuri lehena, gaztetako ausardia galdu dudalako akaso. Dena dela, zer hobetuak hautematen baditugu eta aldaketen premia ikusten badugu heldu diezaiegun eta egin. Nik, neure

arloan, lau urte hauetan ez ditut lortu nahi nituzkeen helburu guztiak, beraz, zer aldaturik badut eta horretan komunitatearen laguntza eskatu beharrean ere banago. Loyolako Iñigotik Ignaziorako eraldaketaren 500. urteurren honetan, gauza guztiak Kristogan berri ikusi nahi baditugu, transforma gaitezen, eraldatu gaitezen, eta transforma dezagun unibertsitatea denon artean, gizartea eraldatzeko pertsonak hezteko.

Esker ona adierazi nahi diegu Aldezlearen bulegora jo duten guztiei, zerbitzuan jarritako konfiantzagatik. Espero dugu eman diegun arretan asmatu izana, baita erantzuna espero zutena izan ez denetan ere.

Eta eskerrik asko unibertsitateko elkarteari Aldezleari erakutsitako errespetu eta begiruneagatik.